

Egungo Euskararen Hiztegia

—Q—

[bertsioa: 2024-01-09]

qatardar ik qatartar.

qatartar (orobat **qatardar** g.er.) izlag/iz Qatarkoa, Qatarri dagokiona; Qatarko herritarra.

Bertako tourrean ez du oraindik txirindulari **qatartar** bakar batek ere parte hartu. **Berria - Kirola**

Albert Chepkurui orain arte, **qatardar** bihurtu den arte. **Berria - Kirola**

Saif Saaeed Shaheen **qatartarra** (munduko txapelduna 3.000 metro hesidunetan) ariko dira lehen aldiz proba berean. **Berria - Kirola**

Qatartarra seigarren da, Kipchogeregandik eta Bekelerengandik sei eta bost segundora. **Berria - Kirola**

750.000 biztanle ditu herrialdeak, horietatik 200.000 baino ez dira **qatartarrak**. **Berria - Kirola**

Datila oinarriko elikagai izan da inguruotan ehunka urtean eta, ondorioz, eragin genetikoak du egun diabetesak **qatartarrengan**. **Berria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

saaeed shaheen qatartarra (4)

quaffle iz futbolekoaren tamainako pilota gorria.

-Pilota honi **quafflea** esaten zaio -esan zion Woodek-. **Iñaki Mendiguren**

-Jazarleek **quafflea** botatzen dute eta uztaietatik pasarazi behar dute puntuatzeko. **Iñaki Mendiguren**

Fred Weasleyk bludger bat jaurti zion Warringtoni, jo eta eskuetatik **quafflea** botaz. **Iñaki Mendiguren**

Katiek berriro sartu zuen **quafflea**. **Iñaki Mendiguren**

Warringtonek kendu dio **quafflea**, Slytheringo Warrington bizkor zelaiaren alde batetik bestera... **Iñaki Mendiguren**

Ez, Slytherinek hartu du **quafflea**, Slytheringo kapitain Marcus Flintek bereganatu du **quafflea** eta badoa aurrera... **Iñaki Mendiguren**

Quafflea uztaiek igarotzen den bakoitzean hamar puntu. **Iñaki Mendiguren**

quanta ik **kuantu**.

quanto ik **kuantu**.

quantum ik **kuantu**.

quark iz partikula elemental teorikoa, beste partikulen osagaia.

Quarka da orain arte ezagutzen den materiaren osagairik txikiena. **Berria - Gaiak**

Quark -ak Gell-Mann zeritzan batek asmatu zituela 1964an, **quark** izen hori berori barne [...], diotenez, espektroskopia hadronikoa izeneko gauza bat esplikatzeko beste erremediorik ez zuelako, etsi-etsian. **Iñaki Segurola**

Karga elektrikoa positibo eta negatibo gisa deskribatzen den bezala, **quarkak** gorriak, berdeak edo urdinak izan daitezkeela esan zuten. **Berria - Gaiak**

Atomoaren nukleoa osatzen duten partikulak eta horiek elkartzan dituzten indarren inguruan eginiko ikerketa saritu diete fisikarior, batez ere **quarken** elkarrekintzetan agertzen den askatasun asintotikoa deritzona aurkitu izana. Ustezko **quark** -ak elkarrengandik oso gertu daudenean, haien arteko interakzioa hain da ahula non ia partikula libreen gisan portatzen baitira, eta, aitzitik, **quark** -ak elkarrengandik urrunago, eta interakzioa handiagoa baita. **Berria - Gaiak**

Quarkek hiruko taldetan elkartzeko duten joera argitu zuen teoriak. **Berria - Gaiak**

Gertatu ez balitz gehixeago izatea elektroiak antielektroiak baino eta **quarkak** antiquarkak baino, partikula arruntak, materiaren oinarri-oinarrian daudenak, absente leudeke gaur egun unibertsoetik. **Juan Garzia**

quasar iz izar moduko gauzakia, irrati uhinen eta beste energia moten iturri ahaltzua.

Azken mende honetan astronomoek aurkikuntza ugari gehitu dituzte kosmosari buruzko ezagutzan: zulo beltzak, supernobak, pulsarrak, **quasarrak**, Eguzki Sistematik kanpoko planetak. **Berria - Gaiak**

quebectar izlag/iz Quebec-koa, Quebec-i dagokiona; Quebec-eko herritarra.

Erritmo festa horren ostean, Sabin Jacques soinu jotzaile **quebectarrak** melodia aldarrikatu zuen Rachel Forest pianistaren laguntzarekin. **Berria - Kultura**

Quebecen Bloke **Quebectarra** nagusitu arren, kontserbadoreen emaitza onek behera eginarazi dute. **Berria - Mundua**

Alderdi **Quebectarreko** buru Bernard Landryk argi utzi zion kazetari bati lehengo asteburuan eginiko elkarrizketan. **Berria - Harian**

Baina han zen orobat nire frantseseko irakaslea, Mademoiselle Des Forêts, **quebectar** lirain hura. **Oskar Arana**

Kanadako Gobernuaren aginduz Gorte Gorenak **quebectarren** balizko sezesioaz 1998ko abuztuan kaleratu zuen ebazpena gogoratu du Turpek. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bloke quebectarra (6)

alderdi quebectarreko (3)

quechuera ik **kitxuera**.

quinear *izond* W. Quinerena, W. Quineri dagokiona.

Sistema **quinearrak** esanahia baztertuko du kontzeptu autonomo gisa, eta bere jakintza sistema ereduak guztitasun bat bezala jokatuko du. [Askoren artean](#)

Semantizista gehienena bezala, van Fraassenen zientziaren irudia antifundazionalista da (vs ikusmolde estandarra), antinaturalista (vs empirismo **quinear** eta kognitiboa, bai eta vs naturalismo sozio-historikoak) eta konstruktibista. [Askoren artean](#)

quorum *iz* biltzar batean erabakiak hartu ahal izateko egon behar duen gutxieneko kide kopurua.

Estatu Batuetako Senatuan **quoruma** Finantza Batzordeburuak eta Etxe Zuriko mezulariak osatzen dute. [Xabier Olarra](#)

Legebiltzarrean orotara 57 diputatu daude eta **quoruma** egoteko gutxienez 35 egon behar dira. [Berria - Mundua](#)

Ez da **quorumik** izan Legebiltzarrean. [Berria - Mundua](#)

PCko diputatuek bertan behera utzi nahi izan zuten eztabaida, **quorumik** ez zegoela argudiatuz. [Berria - Euskal Herria](#)

Quorum hori ez bada, beste bozketa bat egingo da, eta orduan nahikoa izango da gehiengo soila. [Berria - Kultura](#)

Batzarrak %25eko **quoruma** izan beharko du. [Berria - Kirola](#)

Ribaforadako Udalak, 1997ko urtarrilaren 20an egin osoko bilkura arruntean, ondotik ematen diren ordainarazpenak onetsi zituen erregelamenduzko **quoruma** zuela.

[Aingeru Epaltza](#)
